NAHIKO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 4. MAILA

# 5. UNITATE DIDAKTIKOA:

# KOMUNIKABIDEAK

# GAI ZERRENDA



**HEZKIDETZA**

- Irakaslearen gida

**MATERIALA**

- "Pertsonaiak" jolasa
- "Komunikabideen partxisa" jolasa
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA

## NAHIKO! 3-4 Logoa

Mundu erdia grisa.
Desberdintasunez osatuta.

Mundu erdia berdea.
Berdintasunez osatuta.




**HELBURUA: puntuz puntu, mundu grisa berdeagoa bilakatu.**

## NI ETA MUNDUA, MUNDUA ETA NI:

- Bizitzarako, norbere autonomiarako eta harremanetarako zainketaren eta enpleguaren balioa eta nagusitasuna.

## HELBURUAK:

- Ikasleen garapen osoa sustatu.
- Eredu maskulinoaren unibertsalizazioa aztertu.
- Eredu femeninoaren baloreak azpimarratu.

## EDUKIAK:

- Mundu zabalaren aurkikuntza, ezagutzeko, ulertzeko eta kontatzeko grina.
- Ni eta mundua, mundua eta ni: nola bizi naiz, zer behar dut bizitzeko, norekin bizi naiz, ze harremanak ditut, nola tratatzen ditut...
- Munduaren ezagutza eta interakzio bikoitza:
  - Narrazioa, fikzioa
  - Informazioa, albisteak

# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 4. MAILA






| UNITATEAK | JOLASAK |
| --- | --- |
| 4. Lanbideak | Laukoteak. Hitz debekatuak |
| 5. Komunikabideak | Pertsonaiak. Komunikabideen partxisa |
| 6. Elkarbizitza berdintasunez | Elkarbizitzaren oka berdintasunez jolasa |

## 5.UD, KOMUNIKABIDEAK:

- Komunikabideetan (prentsa, telebista, irratia internet...) inplizitoki zabaltzen diren eredu femeninoak eta maskulinoak identifikatu eta aztertu.

- Arlo eta atal guztietan, pertsona ororen albisteak, meritoak eta ekarpenak modu berean, balio berberaz eta tratamendu bera emanez jasotzeko eskubidea, pertsonen sexua kontuan hartu gabe.







# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA:

1. Helburuak eta edukiak
2. Materialak eta ekintzak
3. “Pertsonaiak” jolasa
4. “Komunikabideen partxisa” jolasa



NAHIKO! 3-4

KOMUNIKA-BIDEAK

5 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 9

### 1 HELBURU ETA EDUKIAK

Bostgarren unitate didaktikoak **berdintasunaren ikuspuntutik komunikabideen azterketa** du ikasgai. Aurreko unitateetan esan dugun bezala, Nahiko programaren helburua neska-mutilen arteko gaur egungo eta, bereziki, euren etorkizuneko bikote harremanetan tratu txarrak prebenitzea da. Tratu onez osaturiko etorkizuneko harreman horiek, soilik berdintasunak eta emakume eta gizonen giza eskubideen errespetuak bermatu ditzake. Horretarako, Nahiko egitasmoak gure ikasle neskak eta gure ikasle mutilak Berdintasunaren Oka berdea deritzogun hezibidean hezi nahi ditu. Hau da, hezi daitezela gure eskoletan pertsona autonomiadunak izateko eta euren bizitza ibilbideak bizitzaren arlo guztietan garatu ditzaten: norberaren eta familiaren zainketa arloan, enplegua eta autonomia ekonomikoan, etabar.

Programaren hiztegia erabiliz esateko, **bizitzeko bi eredu ezberdinen artean aukeratu behar dutela** erakutsi nahian gabiltza: (mutilentzat) oka urdinak eta (neskentzat) oka arrosak irudikatzen duten bizitza ibilbidea alde batetik, eta (nahiz neska nahiz mutilentzat) berdintasunaren oka berdeak irudikatzen duena. Bizibide batetik ala bestetik abiatzeak, bai norberarentzat eta bai besteekin ditugun harremanetan zein ondorio ezberdinak dituen ulertarazten saiatzen ari gara.

**Oka urdina eta oka arrosaren bizibideak** (ohizko genero estereotipoak) pertsona erdiak izatera eramaten gaitu, soilik bizitzaren arlo batzuetan garatuak eta ez beste arlo batzuetan. Bestetik, bi oka horien ibilbideak oso estatus eta bitarteko ezberdinak ematen dizkie emakume eta gizonei eta, ondorioz, ezberdintasun horren gainean eraikitzen dituzte euren arteko harremanak, hauek nagusikeriz, menpekotasunez eta tratu txarrez betetzeko arriskua oso handia dutelarik.

KOMUNIKABIDEEN PARTXIS JOLASA

EL PARCHIS DE LOS MEDIOS DE COMUNICACION

tratu txarrak NAHIKO! 3-4 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# KOMUNIKABIDEAK



## HEZITZAILEAK

- Eskola ez da hezitzaile bakarra.

- Komunikabideak gizarte eskola indartsu eta eraginkorrak dira.



- Hedabideetan, gizartean…

  - Presentzia.
  - Harremanak.
  - Arrakasta.

  lortzeko oinarrizko ereduak ikasten ditugu.

- Gizartean eta bizitzan arrakasta edota ospea izateko ereduak.



NAHIKO! 3-4

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# BEHAKETA ETA AZTERKETA: EMAKUMEAK ETA GIZONAK KOMUNIKABIDEETAN




## EMAKUMEEK ETA GIZONEK TRATAERA EZBERDINA JASOTZEN DUTE KOMUNIKABIDEETAN

- Kontatu zenbat emakume eta zenbat gizon agertzen diren ikasleen eta bere familien ohiko komunikabideetan. Aztertu zein atal eta albisteetan agertzen diren, zein esparruetan, zein merito eta galderekin, etabar.

- Esparru oso ezberdinetan eta trataera eta protagonismo oso ezberdinekin agertzen direla baieztatu.

- Orokorrean, komunikabideek “gizonen” jarduerak, gauzak eta mundua islatzen dute. Biztanleriaren beste erdia izan arren, emakumeak eta “beraien” jarduerak ikustezinak dira.

- Esparru “garrantzitsuenak” gizonentzat izaten dira: izokin-koloreko prentsa, ekonomia, politika, kirola, orrialde bakoitiak, azala, etabar. “Garrantzi gutxiko” esparruak emakumeentzat izaten dira: prentsa arrosa, esamesak, moda, bitxikeriak, orrialde bikoitiak, azken orrialdea.

- Gizonentzat: gehienbat enpleguan eta arrakasta sozio-ekonomikoan oinarritutako arrakasta edo porrota. Emakumeentzat: gehienbat edertasunean, bikote harremanetan eta familiako arrakastan oinarritutako arrakasta edo porrota.

# NORK BERE BURUA NON IKUSI, NON IRUDIKATU



## IKASLEEK ZERA IKUSI ETA IKASTEN DUTE KOMUNIKABIDEETAN

- Gizonak non dauden eta non ez dauden, etorkizunean mutilak non egongo diren eta non ez diren egongo: mutilak izateagatik dagokien lekua, espazioak eta esparruak.
- Emakumeak non dauden eta non ez dauden, etorkizunean neskak non egongo diren eta non ez diren egongo: neskak izateagatik dagokien lekua, espazioak eta esparruak.
- Presentzia eta tratamendu oso ezberdina komunikabideetan: protagonismoa mutilentzat eta bigarren mailako papera neskentzat.

## BERDINTASUNERAKO KOMUNIKABIDEAK BEHAR DIRA

→ Emakumeen interesak, kezkak, balioak eta jarduerak islatzen dituztenak, beti ere gizonek egindakoei emandako trataera bera emanez.

→ Emakumeak nahiz gizonak arlo berberetan trataera eta protagonismo berarekin jasotzen dituztenak.

→ Egungo errealitatea isladatzen dutenak, hau da, gizakien albiste, jarduera, ekarpen, merito, interes, ekintza eta abar guzti-guztiak.

# 5. UD-KO HELBURUAK





## IKASLEEK KONTURATU, EGIAZTATU ETA ULERTU

- Bai historian zehar eta bai gaur egun, emakumeak gizonen arlo berberetan egon eta jardun direla, euren adina lan eta ekarpen baliotsu eginez.
- Zergatik ez diren ezagutzen emakume horiek, nola eta zergatik izan dira ezabatuak, nola eta zergatik ezagutu.
- Emakumeak ikustezin bilakatzen dituzten eta euren jardun eta ekarpenak, aurkikuntza eta meritoak, biziak eta ekintzak eskutatzen dituzten mitoak, aurreiritziak, okerreko ideiak eta gezurrak.
- Komunikabideen eragina eta berdintasunaren ikuspuntutik beraien irakurketa kritikoa egiteko beharra. Bereziki zabaltzen dituzten bizimodu eta arrakasta ereduenak, ikasleek berdintasunean eta Giza Eskubideetan oinarritutako alternatibak ezagutu eta proposatu ahal izateko.

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili

## PAUSOAK:

**A) Asteroko saioetan ikasleekin:**

- "Pertsonaiak" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- "Komunikabideen partxisa" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, jolasak barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

**B) Eskolan landu ondoren:**

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# ONLINE JOLASAK




## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU:

- Lan-talderako materialak.
- Eguneroko egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak... biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu...
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak...




## JOLAS BAKOITZAK 3 ATAL:

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA:

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA:

- Jokaldiaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.
- Non dago laburpena?
    - Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.
- Lehen jokaldietan talde osoarekin erabil daiteke eta gero taldeka edo banaka.
- Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK



## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu...
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu...
- Karta edotai fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu...
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# 5.UD-KO JOLASAK

- "Pertsonaiak"
- "Komunikabideen partxisa"





# "PERTSONAIAK" JOLASA




## EZ DAGO ONLINE JOLASTEKO BERTSIOA

- PDF bertsioa: 80 fitxa, 80 pertsonaia. 20 pertsonaia daude, 10 gizon eta 10 emakume, bere esparruan antzeko lorpen eta meritu dituztenak, komunikabideetako esparru bakoitzean (4 esparru, 4 kolore).




## JOLASTEKO MODUA

- Fitxak ordenagailuan zabaldu (PDF artxiboa) edo inprimatu.
- Ikasle batek fitxa bat aukeratu (besteek ikusi gabe).
- Beste ikasleek 1etik 6rako galderak eginez pertsonaia asmatu.

## HELBURUA

- Antzeko lorpen eta merituak izanda, gizonezkoak ezagunagoak direla eta komunikabideetan gehiago ateratzen direla egiaztatu eta aztertu. Zergatik? Justua da?

→ Gaur egungo pertsonaiekin antzeko fitxak egitea.

→ Emakumeak eta beraien ekarpenak ikustaraztea.

# "KOMUNIKABIDEEN PARTXISA" JOLASA




**LAU KOLORE, LAU ESPARRU:**

- Gorria: zinema, musika, telebista…
- Berdea: zientzia, arte, literatura…
- Horia: gizartea, politika, ekonomia…
- Urdina: kirolak.

**FITXAK:**

- Jokoak fitxa bat egokituko dio jokalari bakoitzari. Kolore bereko fitxa bat baino gehiago badaude zenbakituta egongo dira.




**GALDERAK:**

- Txanda denean, fitxa laukitxotik irten eta aurreratu ahal izateko, berdintasunaren ikuspuntuko galdera bat zuzen erantzun behar da. Egia/gezurra motako galderak dira.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 1

- **Hasierako laukitik atera eta jolasean hasteko, dadoan 5 atera behar da.**




**Adibidea**

* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

# JOLAS ARAUAK 2

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## EGIA ALA GEZURRA

- Lauki zuritik irtetzeko eta aurrera egiteko, berdintasunaren ikuspuntuko galdera ondo erantzun behar da.
- Erantzuna: egia ala gezurra.
- Erantzuna zuzena bada, ondoren dadoan klikatu.

**Adibidea**




* Online jolasaren tutorialean zehatz-mehatz azalduta

# JOLAS ARAUAK 3

## SALTO LAUKITIK LAUKIRA

- **Fitxa, salto lauki batean erortzean hurrengo jauzi laukira joango da.**






EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# JOLAS ARAUAK 4

## ETXERAKO BIDEA

- Fitxa bere koloreko "etxera" joateko bidearen laukietan aurrera egin ahal izateko, egia ala gezurra galderak zuzen erantzun beharko dira.







## JOKOAREN AMAIERA

- Fitxa bere "etxera" (bukaerako laukira) sartzen denean, hiru erantzun dituen galdera bat erantzun beharko da. Erantzuna zuzena bada jokoa amaitu da.

# IKASLEEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




...

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu. Irudiak gehitu...
- Galderak erantzun. Testuak idatzi...

**PDF betegarriak**

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako jolasei buruzko ariketak




**PDF betegarriak**

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Hutsuneetan hitzak idatzi. Irudiak gehitu...
- Fitxak osatu. Testuak bukatu. Galderak erantzun...
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri...).

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei koadernoen helburuak eta erabilera azaldu (ikus beheko laukia).
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu…
3. Koadernoaren ariketak familiekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko erabili.

## TOPAGUNEA DA, AUKERA BAT, EZ “EGINBEHARRA”

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak… BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

## “ONLINE JARRAIBIDEAK” pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.



NAHIKO! PROGRAMA JARRAIBIDEAK

E. ERANSKINA: INTERNETEN BIDEZ ONLINE JOLASTEKO JOLASAK
E2. IRAKASLEA ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSUAK

16. JOLASTEKO ERA AUKERATU
Ikasleen adina eta kopurua, ordenagailu kopurua edo jolasarekin aritzen diren zenbatgarren aldia den kontuan harturik, **jolasteko era moldatu daiteke** (ikus 6.atala, 5.orrialdean):

a) Arbela digitala edo proiektorearekin. Ahal bada, 2 ordenagailurekin. Bakarra badago, **garrantzitsua: leiho independienteak zabaldu behar dira (ikus E3 eranskina).**
b) Taldeka ordenagailu bakoitzean. Binaka, adibidez.
c) Banaka ordenagailu bakoitzean.
d) Jolas talde eta partida ugari. Halakoetan, lehenengo talde bat osatu eta jolasten hasi. Ondoren, 2.taldea sortu eta jolasten hasi. Segi horrela, behar adina talde sortuz.

**OHARRA**: Jolasak, **gehienez 12/14 jokalari** jolasteko prestatuta daude. Hau da, pantailan aurpegitxo baten bidez 12/14 jokalari jaso eta bere txanda noiz den adierazteko.

17. IRAKASLE ETA IKASLEAK ALTA EMATEKO PAUSOAK
1- **Hizkuntza** jokalari bakoitzak aukera dezake, eta jokaldi berean batzuk hizkuntza batean eta besteak beste batean aritzeko aukera ematen du.

2- Jolas bakoitzean **orden honetan** eman behar dira altan irakaslea eta ikasleak. **Kontuan izan ezin direla espazioak erabili, soilik hizkiak eta zenbakiak onartzen ditu.**

3- **Irakaslearen alta** datu hauek betez egiten da:

Sar ezazu zure izena edo ezizena eta sakatu "Sartu" jokoan sartzeko.
IRAKASLEA
(sartu ikastetxearen izena)
1 Joko-taldea
Ikastetxearen izena eta joko-taldea sartu (zure joko-taldea une honetan jolastuko duen ikastetxeko talde bakarra baldin bada 1 zenbakia utzi dezakezu). GARRANTZITSUA: ikastetxearen izena eta joko-taldea jokalari guztiei eman behar zaie irakaslearekin batera jolastu dezaten.

**Kontuan izan guztiek berdin-berdin idatzi beharko duzuela ikastetxearen izena.**

10

NON DAGO MATERIALA?
http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/inf

- **Sarrera librea**
Nahiko! programako material eta jolas guztiak Emaku inolako pasahitzik gabe erabiltzeko.
- **Zikloka antolatuta dago informazioa**
LHko lehenengo zikloa, bigarren zikloa eta hirugarre

Beharrezkoa den konektibitatea
Informazio gehiago
Lehenengo zikloa
Bigarren zikloa
Hirugarren zikloa

- **Ziklo bakoitzean 6 Unitate Didaktiko**
Unitate Didaktiko baten adibidea.

1 UD: Gorputza. Berdintasunez Hazi.
HELBURUA: Sexua gorabehera, neska-mutilek ezaugarri fisiko na eta esperimentatzea, antzeko trebetasunak eta gaitasunak ikasi e errespetagarriak, osasungarriak, baliotsuak eta beharrezkoak no bizitzarako.

- Irakasleen gida (PDF)
- Ikasleen koadernoa (PDF)
- Familiaren koadernoa (PDF)
- Abestia (ZIP, 4.1 MB)

Ipuina:

- Luze eta Txiki (PDF)
- Luze eta Txiki (AVI, 30 MB)
- Luze eta Txiki (WMV, 22 MB)

**Jolasa: Gorputzaren altxorra.** Konektibitatea baieztatu

- ONLINE BERTSIOA
- Deskargatzeko bertsioa: Karta-sorta 1 (PDF) | Karta-sorta 2 (PDF) | Karta-sorta 3 (PDF) | Karta-sorta 4 (PDF)

1

NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO